

Miaxiria



aranoko aldizkaria

2016ko
abendu

Aranotik herriaren etorkizunari begira

Herrigintza eskolak • Arano amestuz
Aranoko hots ahaztuak • Baserriaren jiran solasean
Arano iruditan • Euskara • Eta gehiago...

**zenbaki
honetan**

Gurekin harremanetan jartzeko:
laga@iparmank.eus

Diseinu eta maketazioa:
astidiseinua.com

Testuak: Ainhoa Ansa, Arantxa Ansa, Maider Ansa, Erramun Galparsoro, Elena Irigoien, Kepa Korta, Jesus Mari Larrazabal, Maitane Legarreta, Xabier Legarreta, Oihan Legarreta, Lourdes Legarreta, Mugaritz jatetxea, Jakoba Errekondo, Jose Inazio Salaberria

Argazkiak: Ainhoa Ansa, Arantxa Ansa, Sabino Conde "Kailasa", Lourdes Legarreta, Maitane Legarreta, Mugaritz jatetxea, Hernaniko Kronika, Joxan Ruiz, Jose Inazio Salaberria



L.G.: NA 2378-2016

**Aurkezpena**

3

**Herrigintza eskolak**

4

**Arano amestuz,
etorkizuna eraikitzen hasteko**

5-7

**Arano: mapako
herri txiki, euskalduna**

8-9

**Hemen gaude ta
erabakitze guaz!**

10-11

**Gure bazterrak
ezagutzeko mendi buelta**

12-14

**Arano, iruditan**

15-17

**Borda edo baserriaren
jiran solasean**

18-19

**Aranoko hots
ahaztuak**

20-22

**Zirikimilo
Denbora-pasak**

23-24

**Pello Huizi**

25

**Errezetak eta ipuina**

26-27

**Gazteen erreleboa**

28





Hemen da Miaxiriaren laugarren zenbakia. Bi urtean behin kaleratzen den aldizkariak, aurreko beste hiru aleen bidetik jo du: Arano eta aranoarrak ditu protagonista. Herriari eta herritarrei begira jarri gara honako aldizkari honetan, eta leku esanguratsua eman nahi izan diogu *Arano amestuz* proiektuari. Herrian aurtan landu den egitasmo honek Aranoren etorkizunari begira jarri nahi izan du, eta herritarrekin oro har, baina batez ere, herriko haur eta gazteekin partekatu da gaia. Guztien ekarpenak baliotsuak izan dira herriaren norabidea marrazten hasteko. Proiektuan parte hartu dutenen lekuko eta testigantzak jaso ditugu aldizkariaren hasieran.

Arano herri euskalduna dugu, baina zertan ote dira euskara kontuak herrian?

Gure hizkuntzak Aranon izan duen bilakaerari ere erreparatu diogu. Euskararen egoeraz eta Aranoko biztanleen egoeraz hausnartzeko hainbat datu bildu ditugu erreportaje batean. Miaxiriaren laugarren aleak baditu bestelako kontuak ere, irudi ederrez jantzia baitator oraingoan: Aranoko hainbat argazki polit utzi dizkigu Sabino Condek "Arano iruditan" atalera, paraje zoragarriez gozatuko dugu Maitane Legarretak osatu digun mendi bueltan eta otordu goxoak prestatzeko errezeta pareta bildu dugu. Aurtan, Lourdes Legarretarekin batera, Andoni Luis Adurizek ere errezeta bat ekarri du Miaxirira.

Eta irudiez gain, testuak, hitzak eta hotsak lotu ditugu artikulu pare batean:

batetik baserriaz eta baserriko bizimoduaz ari den kontakizuna eta bestetik, gure inguruan eta egunerokoan entzuten ditugun edota ia galduak ditugun hotsak eta soinuak bildu ditugu, "Aranoko hots ahaztuak" izenburupean.

Horretaz guztiaz gain, aldizkariaren azken aurreko orrialdean duzuen denbora-pasa edo zirikimilo atala aipatu behar genuke. Orri berean datorrenez, aise ken dezakezue aldizkaritik eta etxean osatu ariketak. Behin atal guztiak osatu eta betetakoan Udaletxera eraman dezakezue orrialdea, gehien asmatu dituenak saria izanen du.

Hortxe duzue, bada, Aranon elkarlanean egindako lanaren emaitza, zuen gus-tukoa izanen delakoan. Gozatu!

Herrigintza eskolak

Helburu asko eta denak politak zituen proiektuak. Laguntza txiki bat lortu zuen Udalak eta horri tiraka sortu zen proiektua. Baina, diruak beti laguntzen badu ere, gauza gutxiarekin gure herrian zenbat herri-gintza egiten den ikustea polita izan da!

Gure umeeek herria harrotasunez (eta ez harrokeriaz) ikustea zen helburu potoloena. Autoestimua haizatzea beren herriatik kanpoko eskoletan gure herria der zen adieraztean.

Elkarbizitza bultzatzea; dakitenek ez dakitenei erakutsiz eta denen artean herria ezagutzeko aukerak sortuz.

Aranoren historia eta bertako istorioak, pertsonaiak, bi eta lau hankako animaliak, gure ogibideak, garai bateko ohiturak, berriagoak, kantak, errekek eta mendi bazterrak, toponimia... ezagutzea.

Ezagutzearekin batera, herriari eta herritarrei zerbait polita bueltan eskaintzea.

Herrigintza eskolen proiektuak, 2015ean eman zion hasiera bere ibilbideari, Goizueta eskolara Aranoko iñauteriak zer ziren azalduz eraman zen bideo txiki batekin. Iñauterien bideo horretaz aparte, kajatxo bat prestatu zen txapela gorri zintaduna, morla batzuk, eta argazki batzuk barruan zituela. Hasiera hura izan zuen, gure herriko umeei inguruko herrietako iñauteriak eta hauetako doinuak beraien herrikoak baino errazago ezagutzen ote zituzten errezela hartuta. Eskolan, ensaiotzen... ez ote zen Aranoko iñauteririk aipatzen eta, hortaz, inguruko herrietan ez ote zuten Aranoko iñauterien berri.

Zergatik ez ote zuten gure umeei beren herriko iñauterietaz gela barruan aritzeko harrotasunik sentitzen? Goizueta zahagi dantzak eta Hernaniko kaldereroek gure iñauteriak baztertuko ote zituzten?

Urte horretan zehar hainbat herrigintza eskola burutu ziren, ekitaldi eta tailer ugari; lehen egiten zirenak batzuk, eta beste batzuk berriagoak.

Suroko baserritarrek beren baserri eta sotoetako atea ireki zizkiguten, Burnigo sorora garai bateko Aranoko eskolatik egiten zen "eskurtsioa" berreskuratu genuen (limonadaren ordeztortillak hartuta bazen ere), Mendaratzen Urumea erreka eta bere biodibertsitatea gertuagotik ezagutu genituen Iñaki Sanz biologoa lagun hartuta, Fes-

tetara begira kamiseta tailer bat egin zen, baita feriko egunean baserrietako esperientzia egindako gazta probatzera eman ere. Izarrei begiratzeko gaua antolatu, San Martinetan taloak egin eta jan, batukada tailer batez gozatu, olentzero berria atondu...

Zenbat gauza interesgarri herriari buruz ezagutuak, herrian eta elkarrekin eginak, herriaz eta herrian elkarrekin gozatzeko eginak... Zenbat gauza herriari eskainiak! Eta ez gara herrigintza eskolaz bakarrik ari, izan ere, bakoitzak bere esparrutik, bakoitzak bere tokitik, herria ahoan ibili dute gure umeei joan diren lekuetan. Ipuin lehiaketetan, musika kontzertuetan, pilota gimnasia erritmikoa, futbol aedo hipika bezalako kirol emanaldietan... Nafarroako haur kantari topaketan parte hartzerakoan aspaldiko urteetan ez bezala...

Urte bete pasatu eta gero, 2017ko iñauteriak beti bezain "juxtu" antolatu ziren herrian. Juxtuko beharrak lotu eta gainerakoak, momentuan momentukoa gaindituz. Momentuan gaintzekoa zen zahagi dantzaren jarraipena bermatzea ere. Pisu haundiko gaia, azkenean zama bihurtzera ere iritsi zela zirudiena. Belaunaldi baten faltak horrelakoak izaten ditu! Transmisioaren soka etenak izan ditzake alor batzuetan eta hau ez da hemengo kontua bakarrik!

Gogoan ditut oraindik arratsalde hartako gure gaztetxoan joan etorriak "zomo-

rroak" bazkaltzen ari ginen tokira. Zenbat sartu atera eta zenbat galdera larri, zahagi dantza egingo ez ote zen susmatzen hasiak baitziren ordurako!

Haien larritasunari erantzun nahian, mahaia bueltara etortzeko deia egin genien denei, eta bai azkar bildu ere! "Bilerak" egin genuen, festaren barruan eten bat egitearen zama gehiegi kargatu nahi izango ez bagenu bezala. Iluntzeko eta, beraz, zahagi dantza egiteko ordu bete baino ez zitzaigun gelditzen artean. Horrela hasi ginen poliki-poliki...

—Gu zahartu gara, eta... batetik be-launa eta bestetik gerria... ez dugu zahagi dantzan parte hartuko duenik inor oraingoz, eta...

Gazteen artetik esku bat altxatu eta horrela esan zuen:

—Zer egin behar da ba? Guk egingo dugu!!!

Zahagi dantza eta iñauterien aitzakian hasi zena, zahagi dantzarekin "bukatu" ez dugu esango (oraindik bide luzea izango du eta Herrigintza eskolak) baina haizatu zela behinik behin esan beharko genuke. Zahagi dantza beren gain hartu izatearekin, aurtengo iñauteriak "salbatu" eta herriaren etorkizuna herrigintzatik auspotu zutela esatera ausartuko nintzateke.

Hau herrigintza ez bada, esan diezadala hortaz dakien batek zer den herrigintza.

Arano amestuz, etorkizuna eraikitzen hasteko



ARANO AMESTUZ haurrak etorkizunera begira jartzeko 2016ko uztailaren 1ean egin zen tailerra izan zen. Elena Irigoien Mendialdeako Garapen agentea eta Erramun Galparsoro, Nerea Aierbe, Ainhoa Ansa eta Joxan Ruiz (grabaketa lanetan) herritarrek aritu ziren goizean zehar, hausnarketa, bakoitza bere arlotik jazten. Egunaren eta proiektuaren inguruan lekuko batzuen testigantzak bildu ditugu aldizkari honetan.

ERRAMUN GALPARSORO

Eguna euri itxurarekin argitu zen, eta aurrez egin ditugun saioetan bezala haur taldea puntual zegoen plazan, lehen jolasak hasiak ordurako. Une honetan 3 eta 14 urteko bitarteko herriko umeak daude, gogo eta interes ezberdinak dituztenak. Askotan ezin jakin proposatutako jardunak nolako erantzuna izango duen, gehiago egun honetan genekarren lehen zatiak bezalakoak direnean, larunbata dela eta eskolarik ez dela esan izan digute eta noizbait. Elena gara-

pen agentea etorri zenean ganbaran sartu ginen, lau heldu eta dozena bat ume.

Lekua hartuta kontatu ginen bertan; umeak eroso. Berea egina dute leku hau, eta etxean bezala zirkulu erdian, batzuk eserita eta besteak etzanda, begietan dizdira, esanez bezala, "ea zer dakartzuen guretzako".

Hasi ginen ba aurkezpenekin eta lehen proposamenarekin, alegia, **Arano zuen herria izanik, zer duzue gustuko bertan? zer eskaintzen dizue Aranok?**

Pixkanaka, lotsa gutxiagorekin, lehenengoak animatu ziren eta hauen harira besteak gero. Hanka eta ipurdien kokatziak pentsatzen jarriak zirela adierazten zuen eta zerrenda polita osatu ahal izan genuen. "Ehiza!" Lehenengoak, "lasaitasuna" bigarrenak... Mendia, erreka, Santioak, parranda,

Lehen zatia osatuta bigarrenari ekin genion, galdera berri baten inguruan. **Zer nahiko zenukete Aranok izatea? Nola imajinatzen duzue Arano etorkizu-**



Arano amestuz tailerra.



Murala dendak eta parkea.



Liburutegia.

nean? Hemen irudimen lana eskatu gienien eta badakigu umeak hortan nolakoak diren! Askatasun osoz aritu ziren. Dendak, mota guztietakoak, "txutxe" denda, mugikorren denda, jostailuena, produktu ekologikoa... (Rokeren denda gogoan), igerilekua, frontoi estalia, rokodromoa, hipika, zoologikoa, ikastola...

Ganbarako lana amaitutzat eman eta frontoira abiatu ginen. Helburua pentsatutakoak **horma-irudi edo mural batean adieraztea**, modu librean denon artean bat osatuz. Mota ezberdinetako margo eta paperak erabiliz jarri ziren paretan eskegitako paper handiaren aurrean. Hasieran berriz poliki, gehiegi askatu gabe. Banaka horman tarte bat hartuz batzuk, bi edo hirukoan beste batzuk eta lorez lore, han eta hemen, bere arrastoa utziz besteak. Hasieran pintzel fina eta rotuladorea, gero brotxa, margoak nahastuz eta artista senari erantzunez. Bere saltsan umeak eta koxkorrak,

talde ekoizpenean, komunikazio giroan, gozatzen.

Zerua iluntzen hasia zen eguerdirako eta lehen tantek eman zioten amaiera jardunari. Taldea ondo sartua zegoen lanean eta azken ukituak egin eta gero jaso genuen lana "zimiteyuan" han lehor zedin. Herrigintza proiektuan noizbehinkako proposamenetara ohitu dira gure umeak eta gustoz hartzen dute eskaintzen diegun hura, edozein delarik landuko dugun gaia. Jarrai dezagun, beraz, tarteka gure inguruak eskaintzen dizkigun altxorak mahairatzen, daukaguna baloratzen ikasiz, arreta eskainiz, hitza jarritz.

ELENA IRIGOIEN, Mendialdea Mankomunitateko Garapen agentea.

HAUSNARKETA ARANON: Nora doa gure herria, eta nora nahi dugu guk joatea? Umeen Tailerra. Nolakoa imajinatzen dute umeek herria

Arano herri txikia da. Baina Aranoko herritarren eskuetan dago bere etorkizuna neurri handi batean. Ze motatako herria nahi dugu Arano izatea etorkizunean? Lotarako herria izatea? edo herri bizia izatea? Kanpoan lan egin nahi dugu? edo herrian dauden potentzialak garatu bertan lan egiteko? Lehen sektorea edota turismo sektorea bultzatu nahi ditugu? Antzina-ko ohiturak eta usadioak mantendu eta berreskuratu nahi ditugu Aranoko izaera indartzeko? Zer zerbitzu nahiko genuke izatea Aranoko biztanleria kontuan izanda? Ze motatako etxebizitza nahiko genuke bultzatzea; pisuak, baserriak, etxebizitza berriak edo zaharberrituak...? Herritarren inplikazioa nolakoa izatea nahiko genuke Aranon?

Galdera asko eta erantzunak zabalak. Lanketa polita herri txiki baterako, gehienbat, Aranoko biztanleria kontuan hartuz herriko etorkizuna kolokan egon daitekeela pentsatzen badugu. Momentu



Murala eskola.



Murala metak.



aproposa herritarrek elkarrekin hausnarketa hau egiteko.

Udala eta Garapen Agentzia elkartuta, hausnarketa hau herrian bultzatzeko asmoz, umeei hasi gara, Aranoren belaraldian baten falta badago ere, gaur egun dauden ume eta gaztetxoak Aranorekin duten lotura eta herriko ohiturak mantentzeko gogoia ikusita, herriko etorkizuna bertan dagoelako.

Umeak eta gaztetxoak hasiak dira etorkizunera begiratzen! Eta helduak?

JAKOBA ERREKONDO, Paisajista eta urtetan Zeraingo Garapen teknikaria izandakoa.

"Bat batean, lehenengo sektorea hutsik gelditzen ari da herri txikiak. Denek 3. sektorerara jotzen dute lan egitera, zerbitzuetara. Baina hauek lehenengo sektorearen zaintzea ezinbestekoa dute. Lehenengo sektorea, baseritarrek zaindu izan dutena, indartu egin behar da. Lurraren garrantziaz jabetu behar da. Gu garen guztia lurretik dator eta milaka urtetan



Andoni Luis Aduriz.

egin duguna hortxe dago: ondare guztia, gure kultura eta izakera guztia".

"Auzolana zerbait falta dugunean eginen dugu eta sorrera negatibo bat duen hitza da niretzat. Niri HERRIGINTZAN ari garela esatea gustatzen zait. Etorkizunari begira planteatzen delako, positiboan, eta kalitate baten bila joanez. Auzolanetik herri gintzarako pausoa lan egin behar dela uste dut. Denon artean pentsatuz zertara joan nahi dugun, identitatea sendotuz, autostima lortuz, harrotasuna sustatuz".

Aranok ez dauka ezer ere galtzeko. (...) Etorkizun proiektu bat lantzeko elkarrekin eta hitz egin behar da. Martxan jartzea da soluzioa. Horrelako proiektuak ez dira egun batetik bestera agertzen. Martxan jarri, parte hartzearen dinamika hartu... eta bestea pixkanaka etorriko da, Bidea egiten hastea da garrantzitsua, ekitea!".

ANDONI LUIS ADURIZ, Mugaritz jatetxeko sukaldaria.

Txiki txikitatik gurasoei Aranora joaten ginen egun pasa. "Piknika" egiten genuen bertan eta ni hango bordei begira egoten nintzen. Borda baten jabe izatea gauza oso handi eta serioa iruditzen zitzaidan orduan.

Aran munduko lekurik liluragarrienetakoa da niretzat, beste planeta batean egotea bezala da. Bertan lasaitasuna, askatasuna, bakardadea... aurki daitezke baina aldi berean ordu erdira baino ez dago. Ez dakit etorkizunak zer ekarriko digun, baina nik beti esaten dut bizitzan norbere ametsak jarraitu behar direla eta, batek daki! Agian ni ere txikitako amets hori erdieste-ko gai izango naiz egunen batean!

● Ainhoa Ansa

Arano: mapako herri txiki, euskalduna



Herri txikia da Arano, biztanle kopuruari begiratzen badiogu. 130 biztanle inguru ditu. Handia da, berriz, azalerari begiratuz gero, 13,7 kilometro karratu baitauzka. Iruñerriko udalerri jendetsuak, esaterako, askozaz txikiagoak dira (Barañain: 1,4 km²; Zizur Nagusia: 5,1 km²; Berriozar: 2,7 km²; Atarrabia: 1,1 km²; Burlata: 2,2 km²...). Hemen bizi garerok, eta hona etortzen den orok, badugu nahikoa espazio eta lurralde ibiltzeko eta arnasa hartzeko.

Arnasa eta hizkuntza elkarrengana bilduta, *arnasgunea* izendapena sortzen da. Badira eguneroko bizitza euskaraz egin daitezkeen gune eta herriak, eta herri horiek arnaguneak direla diote soziolinguistek. UEMAK ere horrela izendatzen ditu, arnaguneak. Hizkuntzak arnas hartzen baitu herrian, lasai eta non nahi mintzatzen delako euskaraz: kalean, etxean, lanean, edota eskolan; gune horietan naturaltasunez hitz egiten da euskaraz eta horrela transmititzen da belau-naldiz belaualdi.

Orain arteko transmisio horri eta erabilerari esker bizi da euskara. Herritarren ia %90a euskaldunak dira Aranon. Are gehiago, gure ingurua ere arrunt euskalduna da, Goizueta esterako. Baina bada

gure artean hizkuntzaren inguruko kezkarik. Euskarak bizi duen egoerari eta etorkizunari buruz hausnarketa egiteko Leitza, Goizueta, Areso eta Aranoko udaletako Euskara Zerbitzuak *EUSKARAZ GARA* dokumentala grabatu zuen 4 herrietako 46 herritarrekin. Bertan agertzen dira Aranoko hainbat herritar: Josu Sarobe, Xabi Cuetto, Kontxi Klaber, Xabier Legarreta, Joxe Manuel Muñoz eta Mirari Beasain. Parte hartzaileen bizipenak eta lekukotasunak jasotzen ditu bideoak, eta helburu nagusi eta orokor bat izan zuen dokumentala grabatzeak: Euskararen inguruko sentiberatzea eta kontzientziazioa lantzea, euskararen inguruko jarrera kontzienteak eta indartsuak sustatzeko eta, horren bitartez, eguneroko bizitzan herritarrek euskararen aldeko hautuari hobeki eta sendoago eutsi diezaioten. Dokumentala ikusgai duzue www.iparmank.eus helbidean, baita youtube atarian ere.

Euskararen eta biztanleen beherakada

Herri euskalduna izanagatik ere, azken urteotako joerari erreparatuta hizkuntzaren erabilerak beheranzko bidea hartu duela esan genezake. Ondorengo taulak Aranon euskararen ezagutzak 1986-2001 bitartean

izan duen bilakaera erakusten digu. Nafarroako Gobernuak emandako datu ofizialik ez dugu geroztik. Dena dela, aurtan egin berri dute beste ikerketa bat eta laster kaleratuko dituzte emaitzak. Edozein modutan, eskuartein ditugun datu hauen arabera, Aranon orain 30 urte %93,8 euskalduna zen herrian, eta 2001ean %87,2ra jaitsi da kopuru hori.


2001		
Euskalduna	Ia euskalduna	Erdalduna
%87,2	%7,5	%5,3

1996		
Euskalduna	Ia euskalduna	Erdalduna
%85,7	%11	%3,2

1991		
Euskalduna	Ia euskalduna	Erdalduna
%93,4	%0,6	%6

1986		
Euskalduna	Ia euskalduna	Erdalduna
%93,8	%2,1	%4,1

MILA BIZTANLE BAINO GUTXIAGOKO UDALERRIAK DESAGERTZEKO ARRISKU MAILAREN ARABERA.



tanle bizi dira Aranon, sei auzotan banatuak: Goiko Herri, Beheko Herri, Suro, Latxe, Benta Berri eta Arranbide. Horieta-
tik erditsua baserritan bizi da; 30 baserri
inguru ditugu herrian. Hainbat urtez he-
rrian umerik jaio ez bazen ere, azken urte
hauek emankorrakoak izan dira.

Garai batean, nolanahi ere, askoz han-
diagoa zen Aranoko biztanle kopurua.
1900. urtean, esate baterako, 430 per-
sona bizi zen bertan. Orduz geroztik bi-
lakaera beherakoa izan da, eta populazioa
dezente murriztu da. Taula honetan ikus
dezakegu bilakaera hori:

Aranoren Etorkizuna

Duela urte pare bat Gaindegiak argitaratu-
tako artikulua baten pasartea ekarri nahi
izan dugu gure aldizkarira. Bertan Euskal
Herriko hainbat eremutan despulatze
arriskua presente dela zioen, batez ere,
Nafarroa Garaian. Bere ikerketaren ara-
bera, epe motzean joera aldatuko ez ba-
litz, hurrengo hamarkadan Euskal Herriko
21 udalerrik desagertzeko arriskua izango
lukete. Epe luzeagoan, beste 16 udalerrri
egonen lirake desagertzeko arriskuan,
horietako bat Arano herria izan daiteke.

Beheko mapan kolore laranja dauden
herriak dira horiek, Arano barne.

Gaindegiak egindako ikerketa, faktore
batzuetan oinarritu dute eta faktore horiek
lirake desagertzeko bultzatzen dutenak,
hala nola, biztanleria bolumenaren gale-
ra, bizitza-proiektua aurrera eramateko
adinean dagoen biztanleriaren ihesaldia,
batez ere emakumeak, zahartze indize al-
tua eta amatasun indize baxua.

Artikulu honetara ekarri ditugun datu
hauek larri samarrak izan daitezke, egoe-
ra geldiarazten ez badugu. Badu erre-
medioa ordea, hel diezaiogun gaiari garaiz
eta zaindu dezagun gure herria etorkizu-
nari begira jarrita. Aranok luzaroan segi
dezan mapan bere tokia izaten.

1900	1910	1920	1930	1940	1950	1960	1970	1981	1991	2001	2006	2009	2011	2015
430	452	501	436	416	416	377	240	201	168	134	141	134	121	108



Hemen gaude ta erabakitze guaz!

"Gure Esku Dago" ekimena, Goierri-ko herri txiki batean hasi eta Euskal Herri osoan hazi da. Gurean ez da ezezaguna, ekimeneko abestiaren bideo-klipean ere agertzen gara geu eta geure herri zoragarria! 2014ko ekainean, aranoar kuadrila ederra joan ginen Durango eta Iruña gure esku eta bihotzez lotzera.

Ezagutzen dugun dinamika da hau, baina ez dago gaizki tarteka gogoe-ta egitea eta oinarrietara begiratzea. Siplea bezain polita da "GURE ESKU

DAGO" ekimenak aldarrikatzen duena. "Herri bat gara; herri gisa erabakitze-ko eskubidea daukagu; eta herritarron garaia da!".

Ez du inongo zatiketarik bilatzen, guztiz kontrakoa, elkarrekin bizi nahi dugula lau haizeetara ozen esatera dator. Horretarako, ez dugu agintari eta politikoei begira egon behar. Erabakitze eskubidea, gauza serioegia da politikoen esku uzteko. Auzoz auzo, herriz herri eta eskualdez eskualde, gaia mahai gainera


atera eta ilusioa piztuz, gure eskubideak praktikan jarri nahi ditugu. Horretarako, herrian gaia landu, iritzi desberdin guztiak bildu eta herri galdeketa bat antolatu nahi dugu. Galdeketaren gaia, Euskal Herriaren nazio izaera izango da, baina helburua ez da gehiengo independentista bat agertzea, baizik eta herritar guzti-guztiekin parte hartu eta iritzia ematea. Modu demokratiko, lasai eta parte-hartzaile batez, ERABAKITZE ESKUBIDEA praktikan jartzea.



Eskualdeko aurkezpena.



Gizakatea.



Ez dugu inon eskean ibili beharrik. Gure eskubideak defendatu egin behar dira eta agintean daudenei gogorarazi, ez gaudela lotan eta gurea dena guretzat nahi dugula.

Mila traba jarriko dizkigute, baina Goierriin hasi, Etxarri eta Arrankudiagatik pasa eta Gipuzkoa eta Bizkaia hainbat herritatik igaro den olatu hau, gurera iritsi da. Aranon, Goizuetan, Leitzan, Areson, Araitz-Betelun eta Larraun-Lekunberrin

olatu hau hartu eta surfeatu beharrean gauda. Gipuzkoa aldetik ere, ez dira geldirik egongo, Hernani eta inguruak ere bustiko ditu olatuak. Ez gara gu, aranoarrak, busti gabe geratuko, ezta?

Herri txikia gara, baina arrazoi handiak ditugu eta inguruko herrien inertziak launduta, "ERABAKITZE GUAZ!".

Animo Arano!

Jende zorionsua, herri libre batean!

● "Aranon erabakitzea guaz" taldea





1. argazkia. "Txarai Buru"



3. argazkia. "Sanmiel Soro" edo "Zamila"



2. argazkia. "Arteskintako zabala"



4. argazkia. "Lorentxon bordako borda edo A"

Gure bazterrak ezagutzeko mendi buelta

Ibilbidea, herriko plazatik hasiko dugu, asfaltozko pistan gora kanposantua eskuinetara utzi eta San Rokeko ermitara eramango gaituen bidea jarraituko dugu. Aldapa haundirik gabe Oraune aldera jarraituko dugu, bertan motozaleen bat ikusi dezakegu, izan ere eskuinetara gelditzen baita " JUAN FERMIN

REKARTE" berriki izendatutako moto-kros zirkuitua.

Orauneko bidegurutzera iristen garenean eskuinetara hartu eta pistan gora jarraituko dugu pagadi zoragarriak topatuko ditugularik ia ibilbide guztian zehar. Eskuinetara begiratzen badugu Aranoko goiko herri eta beheko herri izango di-

tugu bistan, baita Donostia eta itsasoa ikusteko aukera bikaina ere! **1. argazkia.**

Ea ba jarrai dezagun aurrera! aldapa gora dugu hemendik aurrera Unamunora iritsi arte, eta desbideratu gabe dena zuzen jarraituko dugu harrizko pistatik bertan topatuko ditugun borda zoragarriak ikusiz. Bidean topatuko dugu



5. argazkia. "Etzabalko borda"



Andresen borda"



6. argazkia. "Enazti"

Herriari edateko ematen dion Ontzozko itturria ere.

Ederra benetan naturak oparitzen digun aukera! Kantinplora bete eta jarrai dezagun Txaran borda, Estartan borda eta Matitxolako bordan barrena Errekalkora iritsi arte. Hemen Mairubaratza paregabeak ikusteko aukera izango dugu. Ez galdu, beraz, Aranoko historiaurrea ezagutzeko aukera!

Ongi ba, bertako ikuspegiak ikusi ondoren pagadi haundira bideratuko gara pista berari jarraituz, **2. argazkia**.

Ikusi ditzagun bertan topatuko ditugun pago mugarrotuak, izan ere garai batean ikatza edo su egurra egiteko erabiltzen zen teknikarengatik dira pago hauek diren bezalakoak; motzak eta zabalak.

Aurrera segita Unamunora iritsiko gara (Gipuzkoa eta Nafarroako muga). Mairubaratzez inguraturik jarraitzen dugu ibilbide osoan zehar, beraz, hemen ere izango dugu zer ikusia.

Hemen paso "kanadiensea" pasa eta pinudia ezkerretara dugula, mugako hesaroaren kontra behera segi eta San Migel sorora (Zamilara) jaitsiko gara. Bertan, hamaiketako eginez atsedena hartu dezakegu berriro ere paisaia zoragarriak izango baititugu inguruan!

Udazkenarekin bat urriko hilabetean Aranoko ehiztariek betetzen dute ingurua zerura begira ea noiz usorik etorriko den zain. **3. argazkia**.

Atsedenaldiaren ondoren aurrera jarraituko dugu, aipatutako postuak eskuineta-

ra ikusiko ditugularik pista zuzen jarraituko dugu Lorentxon bordako bordara edo Andresen bordara iritsi arte. **4. argazkia**.

Leku zoragarria dugu hau ere, bi borden artetik Etzabalera eramango gaituen xenda jarraituko dugu eta hurrengo bixkarrera heltzean eskuinetara hartuko dugu, bixkarrari segiz Etzabalko borda eta basoekekin topo egin arte. A ze lekua hau ere!! **5. argazkia**.

Beruntz joko dugu, beti ezker-esku bi haritziez inguraturik dagoen pistatik atera gabe, bide honek Deskargaraino eramango gaituelarik

Bide dexente beruntz egin dugu eta jada ezkerretara gelditzen zaigun Enazti baserriaren azpikaldeko bidegurutzearan eskubitara hartuko dugu. **6. argazkia**.

Elizako kanpai hotsak ederki entzuten dira bertatik, beraz, beraien laguntzarekin jarraituko dugu beruntz Latseko zubira iritsi arte

Latseko zubia zeharkatu eta gora egingo dugu harrizko pistan eta lehen-dabizi topatuko dugun bidegurutzean eskubitara, hormigoizko bidea hartuko dugu Larratxuriko bidegurutzera iritsi arte **7. argazkia.**

Bertan bizpahiru baserriren artetik pasa eta hormigoizko pista amaitzean, Borda Berrira eramango gaituen xenda hartuko dugu goruntz bertako baserriak atzean utziz eta Borda Berri baserrira iritsi arte **8. argazkia.**

Zuzenean jarraituko dugu aurrera Larriturriko garbitokira iritsiko garelarik. Hemen, garai bateko emakumeek arropa garbitzeko erabiltzen zuten aska eta harriak ikusteko geldialdixoa egitera gonbidatzen zaituztegu.

Leku historiko hau ikusi ondoren aurrera jarraituko dugu harrizko pistan barrena, desbiorik hartu gabe, Beheko Herrira iritsiko garelarik, azken metroak gelditzen dira, beraz, ibilbidea bukatzeko!

Bertara iritsitakoan hormigoizko pista ezkerretara utzi eta auzoko azken baserrian eskubitara gelditzen den harrizko paretaz inguraturiko xendan barrena herrira iritsiko gara azkenean, leku polit askiak ikusi eta gero!!! **9. argazkia.**

Pista zuzen jarraituko dugu desbiorik egin gabe Arano herriaren sarreraraino iritsiko garelarik. Herri guztia zeharkatuz iritsi gara haserako puntura!

UDAZKENAK GONBIDATU GAITU
TA JOAN GARA MENDIRA
ASKATASUNA ETA PAKEA
BATZEN ZAIZKIGUN TOKIRA
MUNDUAN ZEHAR LEKU POLITAK
ASKO IZATEN BADIRA
ARANON DUGU PARADISU BAT
JOAN GABE URRUTIRA

● **Xabier eta Maitane Legarreta**



7. argazkia. "Larratxuriko bidegurutzea"



8. argazkia. "Borda Berri"



9. argazkia. "Beheko Herri"

Arano, iruditan

Sabino Condek eskaini dizkigu aurtengo Mioxirirako argazki eder hauek. Irudiez gain, honako kontakizun labur hau ere prestatu du, erreka bazter eta basoetan barrena eramanen gaituena:

Lamixain erreka

Uraren zurrumurru etengabea sumatzen da, intziri leun baten antzekoa, baina etenik gabea. Orbel lehorrak karraska egiten du gibeletik, haizearen dantza eroak mugituta. Urrutira, galdutako arkume baten beeka larria; ikaratuta, amari hots egiten ari da. Ilunabarraren aurretik, bele batek gaurko gaua odol-gaua izango dela iragartzen du, karranka latza eginez. Bazter misteriotsu eta laiotz honetan, LAMIXAIN erreka adur zurizko adats zuriak bidea egiten du haritzen eta pagoen artean. Hemen, uraren ertzean, lamiek beren ile luzeak orrazten zituzten urrezko orraziekin, eta, batzuetan, galdutako baserritarren bat zelatatzen zuten, hezurretaraino liluratu, maitemindu, berentzat hartu eta haren jabe izateko behin betiko.







Borda edo baserriaren jiran solasean

Aranoko aiton batek aspaldian hone-lako bertso borobila bota zidan:

Besabia, are, bostortz ta gurdi,
akuilu, uztarri, ere,
aitzurra, pala, sega ta itai
sarde, mako ta eskobare.
Zerri ta zakur, asto ta katu,
ardi, ahuntz, behi ta abere,
koinata eta osaba-ilobak
preziso bihar dirare,
baserritarrak bihar bezela
ezin osatu halare.

Aranoarra, esan genezake, atzo arte baserritik eta baserrian (bordan) bizitu dela, bere etxeko abereei eta kanpoko alorrei itsatsita. Bordari (nekazari) horien bizimodua azkeneko hatsetan dabil eta haxe erabat desagertu aurretik, azal-a-zaletik, gogoratze koxkor bat egingo du-gu gure aurrekoen kanpoko giroaz: hortik nola edo hala bizimodua aurrera aterazen zuten.

Abiatu aurretik esan, Aranon, herri txikia izan arren, bada jende prestu eta saiatua. laz baserri tailerrak antolatu zituzten eta bertako haurrek, hauei esker, zertxobait ikasi zuten lehengo bizi baldintzez borda-lantoki (baserri) txiki horietan. Orain jolas modura erakusten dena lehen bizi beharra zen jaiotzetik hil arteraino, hamaika hotz-bero igaro ondoren. Horrez gain, ez zegoen hainbat aurrerapen eta esku lana ugaria zen.

Arano herrialdeak, 1.910. urteko zentso batek dionez, 420 lagun zituen, alderik alde 65 etxeetan banatuak: Bekoerrin eta herrian 31 etxe okupatuak ziren eta auzo gunetan 34 eraikin. Orduko jardun nagusia baserria zen; hortik aparte ikazkintza eta ur saltoko zentraletan betebeharrak gu-txi batzuentzat. Guri basetxea dagokigunez honeri helduko diogu. Jarraian etxeko abereen zerrenda bat jarriko dut adibide gisan, ikusteko zenbat azienda (azinda) bizi ziren gure etxaldeetan.

Zaldiak	7
Mandoak	4



Astoak	65
Behiak	158
Ardiak	2.055
Zerriak	95

"La ganaderia de Navarra" 1.916ko liburutik hartu ditut zentso honen datuak

"...aziendaz ta lan erramintaz bage-nedukan indarra, oiekin ere eztegu orain oso alderdi ederra..."

Honek zer adierazten digu? Zer jana eta zer edana, alegia, zer etekin handia ateratzen zioten azinda haueri gure gu-raso zaharrek eta, bide batez, zenbat lan eragiten zieten animalia haueri uztarri-pean. Hau dena, aurrera atera ahal izateko "agroaldea" txiki hau. Urte guztiko jana eta bazka egin behar zuten, aurrena gizakientzat, senideentzat nahikoa gerturatuko zuten eta behi eta gainontzeko abereentzat neguko jana egin. Esate baterako Udaberrian lursagarra edo patata ereingo zuten eta maiatzean, San Isidro baino lehenago, aurreko urteko haziarekin nahiko arto eta babarrun, behin patataren uztia bildu ezkerro, arbiaren hazia zabalduko zuten patataren soro berean behiei negu beltzean arbi aski emateko.

Zaldalia (pentsua) arruntean izaten zuten, alegia artoa, garagarra, txirta, pagotxa... kooperatibara edo dendara bisi-

ta egin beharrik gabe. Hortik datorkigu esaera zahar bat "zaldalia irabaztera" (Gipuzkoan "garagarra irabaztera"), astoak edo zaldiak bizkarrean azkurea edo hazka egiten duenean leku lehorrean iraulka lurrean bueltaka.

Gure baserrian, Martzeneko Bordan, eskritura zaharretan horrelako datuak datoz, abereei dagokienez: 4 behi eta 3 txahal, 8 behor, asto bat, 42 ardi, 20 txerri eta 3 eul-tza edo erletegi. Begitu ze kuadrilla etxe baterako!!! Garaiko kotxe edo ibilgailua astoa zen, errotera joateko edo "tratua" plazara eramateko ezinbesteko laguna. Gaztetxoak ginelarik gure izebaren ahotik ikasi genuen kantatxo hau: "astoaren kakariya arre mando, Bitoria, Bitoria hau ez da dotoria", eta gure Eneritzi maiz kantatu diogu txikitán: "arre,arre mandoko, biyar Iruñarako, etzi Tolosarako, handik zer ekarriko? zapatak eta gerriko, zeinentzako? aita nerentzako". Astoaren antzera behiak ere oso inportanteak ziren, etxero (??zalantza egiten dut ulertzen ote den?) behi pare bat eta uztarria izaten zen, karraiorako (belarra, iratzea, egurra,...) alde batetik eta, bestetik, lurra gorritzeko, goldea eta hareia pasa ahal izateko. Zotala edo zoia nola jira bestela, gero, alorra maniatu ondoren arto, gari... alea ereiteko? Mandoa ere ez zen makala joan etorritan! Mandazainez betetzen ziren orduko baso-bideak!



gaur egun traktoreak eginbehar hau betetzen du.

Oraingo aldean ezaupide edo datu esanguratsua da: Arano herrialde osoan etxe bakarrean dauzkate behiak, hau da, Suroko Tereseneko Bordan.

Sendiak garai hartan umetsuak ziren; kide askokoak, alegia. Denak mahaiaren bueltan biltzen ziren (zortzi edo hamar senideko etxaldeak ez ziren arrotz edo arraro egiten), eta beraz, etxean bertan ere nahiko indarra bazen, enpresa txiki edo lantegi bat zirudien borda bakoitze-ko, non gehiena moldatzen baitzuten urte guztirako:

Ogia erretzeko labea edukitzen zuten sukalde ondoan, eta etxeko txikienentzat papila egiteko behi esnearekin nahastuko zuten gari irina behar bazen (hala egiten zuen gure amatxik). Tolarean ere urte guztiko edaria sortzen zuten, sagardoa alegia. Etxeko oiloek arrautzak erruten edo egiten zituzten, aski familientzat. Txekor bat ez zen faltako, beraz, haragia ere nahikoa. Gorotza, ximaurra edo ongarria etxekoa. Goseak ez zeuden gure soroak, landareen haziak urte batetik bestera gordetzen zituzten, esan daiteke "autosufiziente" zirela beren gisara, dendara joan beharrik gabe, bizitzeko adina bazirela. Orduan ere "zakurrak hanka hutsik" dio esaera zahar-rrak, eta noski, beren komeriak edo gora-beherak edukiko zituzten, baina libreago izango ziren ezparik gabe, menpekotasun gutxiago gure aldean: dirua, kotxea, mobila, maileguak, telebista,...

Mundu edo kanpo giro hau itzaltzen dijoan neurrian euskera ere moteltzen ari zaigu hiztegi aldetik eta egitura aiekatik, gizon-emakume horiek ingurua garbiago ezagutu zuten eta gure hizketa indartsu eta osasuntsuago murgiltzen zen beraien jiran. Hemen hamaikatzu bat hitz, laister

batean erabiliko ez genituzkenak: azmarrian, ernai, txahala, iñausi, susara, arka, igel, hizko, bigantxa, zikiratu, destera, eskutila, zerba, ziazerba, makatza, men-tua, zokorra, egutera, mozpela, antzua, ... Esamoldeak: "belar motzian hazitakua", "babak eltzetik aterako dizkik/n horrek", "biharrak erakusten dik/din", "jokua ez da errenta, hobe da oilaskua erreta", "po-briaren suertia neke dobla"...

Eltzegorra, gutxi batzuk jakingo dute lurrezko ontzi batekin egindako tresna hau zer dan eta zertako erabiltzen zuten. Itxiturak edo langa eta ataka ez ziren ga-raian, azindak uxatzeko.

Gure hizkuntza arlo berrietara egokitzen ari den moduan, alorretatik alden-tzen dijoakigu tamalez. Gure mintzaira oso moldaerria izan da mendez mende eta aixa kokatu da gizarte berri honetan. Nikolas Ormaetxea "Orixe", olerkari haun-diak zioena: geroak esan beza, herri bat izan zan, edo eta hats emaiogun hortan iraun dezan.

Beste elkar hizketa bizia zena baserri-tan orain gero eta gutxiago aditzen du-gu gure artean, hau da hika-noka. "Hi-ka" (mutikoena) "noka" (neskena) baino gehixeago entzuten da. Hala eta guztiz ere zuka tratamenduak beste biei aurre hartu die eta gaitzerdi egiten dugun bitartean! Erdarazko "tu"/"usted" parekoa da, eta leku guztietan balekoa da.

Baserriko harira itzuliz, esan, hurrengo belaunaldiak badaukatela non saiatua go-go ia zanez gero, bordako argia erabat itza-li aurretik! Gainera "ekologikoa", "ama lurra", "jan garbiak", "etxeko generoa" etab. hitzetik hortzera darabilzkgun hitzak dira eta jendea edo gizarte orok horrerako joera nabarmena du. Lehengo babarrun, gari, arto, patata... haziak gordetzeko eta berriz ere ereiteko amorrazioarekin dabilen



Oarso aldizkariaren iragarkia 1931-1933.

gizataldea, transgenikoen kontra, erraus-tegien aurka... gaixotasun kroniko asko-ren sorburu eta errudunak transgenikotik datozen alimantu kutsakorrak...

Osasuna eta lehengo nekazaritza uz-tartu ditzagun eta gure umeei erakuts die-zaiegun jator jokatzeko Ama Naturakin.

Bukatzeo baserriko beste bertso eder bat, aranoar zahar batek neri erakutsia eta ikasbide dotorea ematen diguna:

Erliak udan ere kanpotik
etxera eramaten du
harrek badaki bere buruba
neguan nola mantendu;
inori eztiyo ezer ostutzen
berak eginga jaten du,
erliak danak alkar hartuta
alperra eta elbarra kendu
guk askozaz ere hobe genduke
hori egingo bagendu.

Aranoko hots ahaztuak

Jar zaitezte momentu batez isiltasunean. Ze hots entzuten dituzue inguruan?

Aranon zorte handia daukagu, gure inguruko hotsak naturarekin harreman estua dute eta oraindik. Duela urte batzuk entzuten ziren hotsak galtzen ari gara, ordea, zoritxarrez. Gaur egun, batzuk ia desagertzeaz daude eta beste hots batzuk guztiz desagertuak. Hauetaz idaztea otu zaigu oraingo honetan, hots, Aranoko soinu ahaztuez.

Aranoko bi baserrian egon naiz, penaz gainera, gehiagorekin ere hitz egiteko gogoz geratu bainaiz. Lehenik Suroko Beltsoko Borda baserrian eta bigarrenik Leontxon Bordan. Hauek dira Jose Antonio, Maria Jesus eta Xantiren gogotik berreskuratu nahi izan ditugun hots xume bezain politak.



Jose Antonio Ansa tronpetakin.

Beltsoko Bordako Jose Antonio Ansak, bere osaba Matias Huizi, Gaztazko Bordakoaren eskutik ikasitako soinu tresna batzuk ekarri dizkigu gogora. "Ne osaba, gehinian erdiko bordan eoten zen. Arotz banko bat bazakan, sea pikatzekua're bai...eurra lan asko itten tzun, aizkoa kirtanak, aitzurran kiderrak, sea

kirtanak...ta gu beti han bueltaka ibiltzen ginan. Animalik'e bazittun ta Txurdainko Borda aldian bihorrak izaten zittun. Han jana jartzen tzun ta besten bihorrak torri ta jaten ziyolako krixton amorraziyuakin biali nahi izaten zittun. Tronpeta itten tzun hortako."



Oiartzungo Soinueneako museoan dauden argazkiak.

TRONPETA

"Tronpeta itteko, kainabera bihar da. Kainabera goiko aldia itxiyakin ta juntatik mozten da. Geo kainabera mingaina in bihar zayo labana batekin, pixkat rebajatu ta bustiz bibratu itten du."

Modu honetan lengüeta bat egitea lortzen zuten eta hori adar bati sartu eta adarraren soinua errazago ateratzen zuten. Horri deitzen zioten tronpeta.

"Adarra hustutzeko berriz, usteltzen ta sekatzan utzi bihar da, nahiko denbo... hilabete batzuk behintzat bai ta geo barreneko muina atetzeko mahai baten kontra poliki juaz juaz atetzen ta eroitzen juaten da. Geo punta, lehen, billabirjina edo taa-tulu batekin bueltako bueltaka, kainabera sartzeko aina zulatu bihar tzen ta tronpeta hartaka osatzen zen. Gero taladruk aertu zianian errexo itten ginittun. Ta tronpeta animalik uxatzeko ta ibiltzen zun osabak. Karnabalatan'e ikusi izan dia Kornetakin batian ta adarrakin bestian. Adarra hutsik ez zen jotzen miño batzutan kornetan bokila sartuta're ibiltzen zen.

Juan Mari Beltran, etnomusikologoak sortutako Oiartzungo Soinuenea museoan, jasoa dago Jose Antoniok egindako tronpeta ale bat.

Animaliak izutzeko beste bi tresna, karraka eta eltzegorra egiten ere erakutsi zion Matiasak Jose Antoniori eta Xantik ere egiten omen zituen karrakak.



Xantik egindako karraka.

KARRAKA

Mairizeneko Jose Marik'e itten zittun minoguk osabai ikasi giniyon. Normalian lizarra kin itten zittun dibujua polittagua zelako ta gañe hemengo eurrik gorranatakua zen. Karrakan erdiko piezak, gorak bihar zuten izan, errueda ta mingaina. Beste zatiyak akeziyakin'e posible zian in. Geo zalain beliak tortzen zianian artua jate, le-yotik karraka jotzen ginun haik izutzeko, sukalde torri miño lehen berriz'e bueltan tortzen zian miño

Xantik ere majina bat karraka egin izan zituen. "mingaina oso fina izan bihar zun ta gue amonak hoi izaten zun zozuk ta bialtzeko".


Maria Jesusek dio: "Aste santutan debekatua zen kanpaia jotzia ta elizkizkizunak noiz zian anuntziatzeko erabiltzen zen baita're karraka."

ELTZEORRA

Musika tresna hau ere animaliak izutzeko erabiltzen zen eta dirudienez, animaliak erotu arterainoko frekuentzia berezia du. Beste herri batzuetan diotenez animaliak bere sokatik lotuta egonda eltzegorra jo eta itotzeraino izutu izan dituen tresna dugu, baina Aranon...

Jose Antoniok: "Osabai ikusi izan niyon itten ta bihorrak izutzeko erabiltzen tzun. Behin gotu zitzaian halako bat in bihar nula miño, enakan denboik itteko ta azkenian Lontxon Bordako Joxe Juanek norbattei inazi ziyon enkargu bezela. Eltzia lurrezkua zen ta larrua jartzen zitzain eltzian tapa bezela. Soka bat lotu larruan ta pikiyakin bihatzak iyurtzi ta soka iyurtzi bihar tzen soinu atetzeko.

Joxe Juanek ekarritako Eltzegorrarekin joan zen behin Txarara behorrek zeudelako atarian eta... gañekaldian jarri nitzan bihor hoik izutu bihar nittula ta pru,pru,



Soinuenea museoko argazkia.

pruuuuu, pruuuu, !!!soinua ate nun miño bihorrak gora beitu ta ijijijijijijijij hortzak eakutsi ta parra in tziaten. Ordun, banakin Jabier Plazakuak'e bihar tzula betizuk ta oraunen gora bialtzeko ta harei ematia erabaki nun. Ez dakit zerbatte ingozun miño

Animaliak izutzea utzi dezagun eta artzaiekin lotutako beste soinu batzuk gogor ekarri. Artzaiekin lotura duen beste soinu berezi bat, ahoarekin egiten den txistua da. Maria Jesusek dio desberdina dela bidaltzerakoan egiten diozun txistua eta ekarrarazterakoan egiten diozun dei txistua. *Toox, toox, tox* ekartzeko esaten diozu ardiari. Behiari *toz torri toz...* etab. Baserritar bakoitzak berera ohituta dauzka bere aziendak.

Azinda desberdinekin lepotik zintzilik eramaten zituzten zintzarri eta jualeak zerrendatzen ere hasiko ginateke, baina bukatu ezinik ibiliko ginateke! Harritzekoa da hauetaz galdetuta zenbat oroitza-pen etorri zaizkien gure hizketa-lagunei mingain puntara! Zenbat animaliri erasten zizkioten juale eta zintzarri hauek! Merezki du, benetan, hauetaz bakarrik aritzeko beste tarte bat hartzea, eta hurrengo MIAXIRIAN ekarriko ditugu horko joale koxkorrak, ahariantzat joale kalaxkak, ardientzat joale bringak, pulunpak (haundi, ttikik eta koskorrak), behiantzat kanpalinak, koskabiluk, bildots edo zakur txintzarrik, dilingak, ahari joaliak, feri joaliak, joalarriyak (luziak eta borobilak), kaxkai joaliak, joale kalankak... Izan ere, lehen animalia ia guztiei jartzen zitzaizkien zintzarri edo joaleak eta hauei buruz hitz egitea ezinbestekoa da. Hurrengo batean hortaz!

SAGARRA JOTZEA

Hitz egiten jarrai dezagun baserriko lanen inguruan. Horietako soinu ahaztuenen artean sagarra jotzearena daukagu. Sagar-



Sagar jotzearen tailerreko argazkiak.

doa egiten jarraitzen da oraindik Aranon, baina, ez antzina bezala. Ez da orain urte asko Soinuenean grabaketak egin zirela Ezkerren-Bordako tolaean sagarra jotzen. Beste baserri gehienetan bezala, Beltso-ko Bordan sagardoa egiteari duela 25 urte inguru utzi zioten, baina han topatzen ditugu "pixoiak".

Pixoiak sagarra tolaean sartu eta zapaltzeko egurrezko tresna hauek ditugu. Jose Antoniori galdetu genion ea jolasik egiten zuten sagarra jotzerakoan eta hala dio. *"Gu saarra jotzen hasteko gaueko hamarrek iual izaten tzian, iratzia ebakitzetik o biltzetik torri ta geo ta ez zen jostatzeko gogo haundiyik izaten normalian behintzat."*

Leontxon Bordan ere sagardoa egiten dute oraindik baina, makinak aspaldi hartu diote lekukoa pixoia eta sagarra jotzeari. Xantik honela dio: *"gue itxian uan*



sukaldia denetik sartzen zen saarra ta ate bat bertan izaten zen. Tolaria bertan izaten ginun ta saarra bota neurri batian ta jotzen hasten ginan. Bat bestian ondolik elkarrei trabik in gabe erki jotzen ginun, tin tan tin tan... ta batzutan konpaziyo bate batei iual euliya kopetian jarri o ta... geldittu ta hutsa itten zen ta hola jotzen ginun! Ta hirun artian e bai, bat bestian atzian... tzi, tza, tza, tzi, tzz, tza... bakizue patsak nola itten dun!" Ederki jotzen zuen nerekin batera txalaparta bailitzan bata besteari trabarik egin gabe berak zioen bezala. "Bukaera zela ta denak bate're jotzen ginun plast, plast, plast, be kolpe politt batian... erki zioz hau! honei ze in bihar zioz gehio? Jotakua baztertu ta geo beste kapa koskor bat haundigiya ta ttikigiya izan gabe... Uantxe joaldiya badiu! Hestutu're dena eurrezko prentsan, ardatza ezik dena eurrezkua zen tolaría, eurra sartu ta lehenbizitik bai aixa! Saarra ardatzan bueltan jarri, patsa ta geo eur batzuk jarri ta geo hortik gotti... ta denak batian estutze... jo...ieup!! Jo...ieup!! Ta hola soinu dotoria atetzen zun! Pentsa ezazue baserri zahar horietan egurrezko solairuan egingo zukeen soinua. A ze dotoria!!! Argazki hauek Leontxon Bordako Xantik bere oroitzen liburu batetik erakutsi dizkigu.



Aurtengo San Martinetan ere aitzakia polita izan da sagar jotzearen lanera gaurko umeak hurbiltzeko. Sagar jotze eta txalaparta tailerra antolatu genuen eta bertan ikasi zuten lana eta jolasa nola uztartzen zituzten gure aurrekoek. Sagarra jotzen kantari aritu ziren herriko umeak eta gero bertatik ateratako muztioa probatzeko aukera izan zuten. Txalapartaren doinuekin egin zuten beraiek muztioa edateko deia.

MUSIKA TRESNA ETA JOSTAILUAK

Jose Antoniori, bere osaba Matiasen musika tresnak egiten erakutsi zion; esaterako, kriskitiña intxaur eskolarekin eta txistua egiten ere erakutsi zion eta behin baino gehiagotan egin ere bai. "Sahatsan o gaztainan adar zuzen bat hartu, puntatik eutsi, eta azalai eskuakin bueltak manez lasatu in bihar da ta maitzen

denian, poliki, tiraka hartu ta azala ate itten da osoikan. Geo, adarran puska bat kortxo batena bezelakua, moztu itten da goikaldetik ta berriz azalian sartu. Gainerik zulo bat in bihar zaio ta txaflianian zulo bat in. Azpitik itxi in bihar da beste tapoi bat jarrita".

Jose Antoniok egiten zuena zulo bakarrekoa zen eta Xanti gogoratzen dena berriz, hiru edo lau zulorekin egiten zen...probatu eta probatu nahi bezalakoa atera arte.

Honetaz asko daki Xauxarko Jabierrek ere, berak erakutsi zigun 2010. urteko lehenengo Mioxirian, nola egiten zituen jostailuak. Intxaur eskolarekin eta txotx batekin egindako kriskitina eta txistuak...

Lerro hauek irakurri ondoren, itxi ditzagun begiak, eta nahiz eta irakurritz izan, espero dugu momentu batez bederen, zuen buruetan entzun izango dituzuela aspaldiko soinu eta oroitzen politak, eta haurren kasuan, jakin dezatela galtzen ari diren soinuen berri, besterik ez genuen nahi. Hauxe da gure hitz aspertuaren ondolik bildutako soinuen bilduma txikia... hainbeste dira hotsak....

Eskerrik asko gure herritarrei hainbeste maitasunekin beraien garaiko oroitzenak kontatzeagatik. Segi holaxe, behar zaituztegu nondik heldu garen jakiteko eta.

Baietz asmatu!

Hona hemen gure aurtengo ZIRIKIMILO atala!
Galdera hauekin gure hizkuntzaz eta gure herriaz gehiago ikasiko dugu!
Galdetu herrian! Ea zeinek dakien!

1. Miaxiriak bordari eta baserriari begira jarri gaitu (Joxe Inazioaren artikulua)...

a) Jakingo al zenukete esaten animalia bat "zaldalia idabazten" dabilenean, zer egiten ari den?

b) Eltzegorra aipatzen du, baina Aranoko hotsen artikuluan azaltzen da zer den. Saiatuko al zarete idazten ze soinu ateratzen duen?

2. Sagar jotzeko tailerra egin genuenean (San Martinen aitzakian) bi kanta kantatu genituen txalaparta jo bitartean. Gogoratzen duzu hauetakoren bat nola bukatzen zen?

a) Aldapeko sagarraren...

b) Alakiketan, alakiketan...

3. Gaur egun, baserri mundutik datozkigun hitz asko erabiltzen ditugu gure egunerokoan. Esango zeniguke hitz hauek nondik datozen?

- a)** Ausnartu (edo azmartu)
- b)** Jorratu
- c)** Kultura
- d)** Uztartu
- e)** Alor
- f)** Mintegi

_____ Idi parek elkarri lotzeko egurrezko tresnatik.

_____ Ereindako lur zatitik.

_____ Behiaren eta ardien jateko modutik.

_____ Beste toki batean birlandatuko diren landareak ereiteko eta hazteko prestatzen den lekutik.

_____ Landarea hazteko belar txarrak aitzurrarekin kentzetik.

4. Jakingo zenukete Pello Huizi Aranoko zein etxetan jaio zen?

5. Ea asmatzen duzuen Oihan Legarretaren ipuinaren ondoan dagoen txoria zein den.

6. Kontatuko diguzue Aranorekin lotutako zuen amets "txiki" bat?

Bitxikeriak

Ba al zenekien...?

"Los dueños del viento" (Patxi Irurzun, HARPER COLLINS IBERICA) izeneko eleberrian Aranoko pertsonaia batzuk agertzen direla?

Zugarramurdiko sorgin ehiza eta XVII. mendeko Karibeko piraten abenturak lotzen dituen eleberri honetan, Joanes de Sagarmin da protagonista, Zugarramurdiko baserritar bat, bere etxean sagardoa egiten zuena, eta ingurukoen sagarrak ere berak jotzen zituen. Baina inkisizio garaian, zuen guztia galduko du eta pirata moduan aurkituko du aterabidea. Alboka beti bere ondoan duela, horrekin askatuko baititu bere sentimentuak.

Inkisdoreak Zugarramurdira iristen direnean, zaldi gainean agertuko dira Aranoko 4-5 pertsonaia hauek. Gaztelar itxura eman nahi eta gaztelaraz hitz egiten dutela aipatzen du protagonistak, nahiz eta nabari den euskaldunak direla.

Letra zopa

Mendi bueltan ukitutako parajeak aurkitu hemen!

V	A	Z	O	N	L	D	E	S	K	A	R	G	A	Q	F	T
A	R	U	A	G	L	A	O	N	O	E	E	S	F	A	M	M
K	T	W	P	M	I	Y	R	N	O	U	I	G	E	A	L	E
H	E	W	S	U	I	U	Y	R	U	I	A	E	H	Q	D	Y
E	S	V	T	A	S	L	J	Y	I	O	X	A	U	K	A	A
T	K	E	O	Y	H	F	A	X	S	T	Y	K	N	F	R	A
Z	I	Q	F	M	D	U	O	X	O	B	T	O	R	U	Y	U
A	N	U	N	A	M	U	N	O	Q	F	F	U	N	W	E	V
B	T	S	E	Y	V	K	E	K	E	I	A	A	R	X	E	V
A	A	C	T	T	A	Z	R	W	G	O	J	Q	A	R	N	X
L	A	X	Y	A	A	Y	R	D	L	F	O	B	O	Y	I	T
I	E	H	S	Q	I	D	E	O	P	U	I	A	J	U	U	Q
X	U	X	U	K	A	G	K	V	Z	E	I	G	I	E	V	Z
Y	C	W	B	Y	U	K	A	P	P	T	O	F	G	Y	N	T
U	A	Q	N	V	H	P	L	O	E	P	U	T	L	U	Y	E
E	A	U	R	N	I	O	K	P	F	J	A	C	T	F	I	Y
O	N	T	Z	O	R	R	O	T	Z	K	M	U	X	M	R	O

SOLUZIOAK: Larriturri, Etzabal, Unamuno, Errekalzo, Arteskintza, Zamilia, Deskarga eta Ontzorroitz.

Zer da?

Jakingo al zenuke ze lore den?



Ba al dakizue?

Ba al dakizue zer esan nahi duten Aranon jasotako esaera zahar hauek?

Oinezkorik nahi ez, ta zaldizkorik izan ez!

Belarra jorratu ta artoa sasira!

Beste esaera zahar bat idatziko al duzu hemen?

Pello Huizi, aranoar frantziskotarraren ibilbidea

Euskal Herriko Unibertsitatean 'erretiroa' hartua duenean eskaintzen dio ILCLIK *liber amicorum* hau Pello Huizi irakasle eta ikerlariari, jakinda erretiroa irakaskuntzan hartu duela, bai, ez, ordea, ikerkuntzan. Institutuak ohorezko ikerlari emeritu izendatu du Pello eta izena izanarekin betetzen segitzen du, egoki bete ere.

Hitzaurre honen bigarren sinatzaileak Donostiako Alde Zaharrean kokatutako UNEiren 'sotoan' ezagutu zuen Pello Huizi; isil-isilik lanean. Handik gutxira Filosofia eta Hezkuntza Zientzien fakultatean psikologia orokorra euskaraz erakusteko arduratu hartu zuen. Ikasgai hori lehen urtekoa zen eta, orduko ikasketa planen arabera, ikasgai derrigorrezkoa, lehen urtea osorik batera egiten zuten psikologia, pedagogia eta filosofiako ikasleentzat. Euskaraz goizeko taldean eta iluntzeko taldean ematen zuen orduan Zorroagako eraikin zahar hartan. Hantxe ezagutu zuen lehen sinatzaileak Huizi irakaslea goizeko taldean, Pelloren Zorroagako bigarren urtean. Urte biziak eta gogor samarrak irakasleentzat; alaiak eta 'borrokalaria' ikasle askorentzat, itxuraz behintzat. Onerako zein (beharbada, batzere) txarrerako urte haietan bizitakoak ere egin gaitu hirurok: hitzaurre honen sinatzaileok eta Pello.

Aranon jaio zen Pello Huizi, 1942an. Hamar urte zituela Arantzazura joan zen, frantziskotar izateko. Fraide egitea erabaki zuen, eta halaxe da gaur egun. Askotan aitortu diogu – eta gurekin batera Pello ezagutzen duten guztiek – bere bizitzaren ezaugarri nagusia horixe dela: frantziskotar izatetik datorkion izaera erro-errotik zintzoa.

Apaiz ikasketak bukatu eta hiru urtez latina eta alboko gaiak irakatsi zituen Arantzazura, fraidegai gaztetxoaren prestakuntzarako. 1969an Madrilera igorri zuten, bertako 'Universidad Complutense' izenekora, Filosofia eta Letren Fakultatean lizentzia lor zezan Psikologia atalean. Orduan sartu zen lehen aldiz pentsamenduaren, hizkuntzaren eta arrazoitzearen psikologiaren esparruetan, bizitza akademikoan zehar zorrotz landu dituen horietan. Filosofia eta Letretan lizentziadun, Arantzazura itzuli zen, berritua ere irakasle lanetan jarduteko. Horretan lau urte eman ondoren, Donostian Joseba In-

txaustiren zuzendaritzapean orduantxe sortutako UZEIn hasi zen lanean, 1978an. *Psikologia. Hiztegia* egitearen ardura nagusia hartu zuen han. Ia guztia – guztia ez esateagatik – zegoen egiteko. Hasteko, euskarazko lexikoa finkatu eta lexikoaren erabilera garatzea testu berezietan. Zuzenketa askoren ondoren, dena liburu batean argitaratzeko moduan prestatzea. Horretan jardun ondoren, 1982ko azaroan hasi zen Euskal Herriko Unibertsitateko Filosofia eta Hezkuntza Zientzien Fakultatean (Psikologia atalean) irakasle. Ordukoa da bere *Psikologia. Unibertsiterako testuliburu*a, 1984an UZEIk argitaratua eta gehienbat UZEIn bertan landua eta idatzia.

Lizentziari zegokion gradua lortzeko – fakultate batean irakasle izateko nahitaezkoa – tesina aurkeztu eta defenditu zuen Madrilgo Complutenseko Psikologia fakultatean, 1986an, honako gai honetaz: "Escalas de sinceridad en función de instrucciones, inteligencia y sexo". Laburpena *Psicologemas* aldizkarian eman zuen argitara. Handik zazpi urtera doktore tesia *irakurri* (hau da, aurkeztu eta defenditu) zuen EHuko Psikologia Fakultatean, honako gai honetaz: "Efectos de la personalidad y del contenido en el razonamiento psicológico".

Psikologia Fakultatean, irakasle lanez gain, kudeaketan ere parte hartu zuen, Euskara Dekanorde gisa, eta baita Idazkari Akademiko karguan ere. Guri azpimarratzea dagokiguna honako hau da: Pello Huizi hasieratik beretik izan dela ILCLIKo ikerketa-kide, eta zuzendaritza kontseiluko kide ere bai, erretiroa hartu arte. Lehendik ere lankide izan genuen Logika eta Zientziaren Filosofia sailak eskaintako hainbat doktorego programatan. ILCLIK GOGOA aldizkaria sortu zuen unetik beretik bertan izan dugu Pello. Aldizkariaren ale guztietan dago Pelloren ekarpenen bat edo beste, berak idatzia eta sinatua egile gisa, edo batzordekide gisa berak emandako aholku edo egindako zuzenketa bidez. Gaur ILCLIKo



ohorezko kide emeritua da; eta hori ohorea da, bai. Guretzat.

Pellok erretiroa hartu zuen 2007ko azaroaren 27an, 65 urte bete zituen egun berean. Ongi merezitakoa. Berak esana da: "fraide izan ez banintz, ez nuen unibertsitatean ikasterik izango, ezta gero unibertsitatean irakasterik ere". Lan isila eta sakona egin du eta egiten du Pello Huizik, kristau fedea oinarrian, gizakiaren eta herriaren ona helburu, pertsonaren eta naturaren errespetuan, hizkuntza eta arrazoitzea euskaraz aztertuz, etengabe hitzaren eta arrazoiaren alde. Ibilbidean xume eta zintzo jokatu du beti, han-hemenka laguntxoaren artean banatzen diren sarietara sekula begiratu gabe. Orrikin gure esker ona adierazi nahi izan diogu Pellori ILCLIKen izenean modu xume, zintzo eta sakonean. Zeregin horretan laguntza eskatu diegu Pelloren akademiako lagunei ez ezik, baita hainbat fraide laguni eta adiskideri ere. Bihoakie haiei ere gure esker ona.

Euskaraz bizi nahi dugunok asko zor diogu Pellori. Koldo Izagirrek aspaldi poema batean esandakoa dakargu bukatzeko:

*Euskaraz mintzatu behar baldin badugu
mintza gaitzen baina
lagunok
mintza gaitzen bizitzeko
eta ez mintzoa bizitzeko.*

● Kepa Kortza eta Jesus Mari Larrazabal, hitzaurrearen egileak

Oraingoan ere 2 errezeta bildu ditugu aldizkarirako. Biak osagai beraren inguruan egitekoak dira: ehiza da oraingo protagonista.

Baina aldi honetan sukaldari bakarra izan ordez, bi izen ekarri ditugu, eta bakoitzari errezeta bana eskatu diogu. Lehenbizikoa, herriko Lourdes Legarretari eskatu dioguna, beti bezala. Betiko eran, etxean erraz-erraz prestatzeko moduko plater ikaragarria ekarri digu.

Eta bestea, Mugaritz jatetxeko Andoni Luis Adurizen errezeta izanen da. Izan ere, gauza bera proposatu genion eta laster esan zuen baiezkoa bere taldeak.

Beraz, guzti honen ondorioz, gure bi sukaldariek ehiza-rekin egindako errezeta bana ekarri digute gure gozame-nerako, bakoitzak bere erara, eta zein baino zein goxoagoak!

On egin dagizuela ehiza oinarri hartuta hona ekarri ditugun bi errezeta hauekin!!!

Usoa saltsan



OSAGAIK:

- 4 uso
- 1 azenario
- Txorro on bat cognac
- Gatza eta ura

PRESTAKETA:

Ontzi batean, tipula eta azenarioa zatituta, eta baratxuriak erregosten (potxatzen) jarri olioarekin. Beste alde batetik, zartagin batean usoak gorritu. Alde guztietatik kolorea hartzean, cognac-a eta ardoa bota. Hau reduzitzen eduki eta barazkien gainera bota, ura bota, gatzean probatu eta tapatu. Egosten eduki ordu/ordu eta erdi. Uso bakoitzak bere denbora behar du, eta egina dagoen jakiteko, bularrean ziztatzen da, eta xamurtuta dagoenean atera. Eginda daudenean, kazuelatik atera eta saltsa "pasapurean" pasa eta ligatu (baso batean ur hotza jarri eta kutxareka irin nahasi eta saltsara bota irakiten edukiz, loditu arte).

Platerean jartzean, sagar pure pixka bat jarri nahi izanez gero ondoan.

Ehiza profiterolak



OSAGAIK (10 pertsonentzat):

Profiterolak:

- 250 ml ur
- 50 g. gurin
- 50 g. txerri-gantza
- 5 g. gatz fin
- 150 g. irin
- 4 edo 5 arrautza frexko

Ehiza (saltsa egiteko):

- 5 untxi edo erbi barrego errairik gabe
- 1.5 l. ardo beltz
- 250 g. Oporto
- 200 g. soja saltsa
- 250 g. "Manzanilla" jerez ardoa
- 100 g. apio
- 150 g. azenario
- 200 g. tipula
- 5 g. ez kai (tomillo)
- 25 Piper beltz ale
- 500 g. zerri odol (edo erbi nahiz untxiarena)
- 60 g. Bas Armagnac

PRESTAKETA:

Profiterolak:

Ura, gurina, txerri-gantza eta gatza ontzi batean berotuz nahastu. koipeak urtu direnean, irina gehitu eta ongi nahastu. Plastikozko espatula batekin irabiatu oreka ontziaren paretetatik askatzen dela ikusi arte eta berotik kendu.

Oreka zabaldu mahai baten gainean pixka bat hozteko eta beste ontzi garbi batera pasa-

Tiro bat

**Oihan Legarreta
aranoar gazteak,
Villafranka-Alesveseko ipuin
lehiaketan saria irabazi zuen
honako kontakizunarekin.
Zorionak, Oihan, MIAxIRIA
aldizkaritik!**



tu. Orea nahastuz jarraitu eta arrautzak pixkanaka-pixkanaka gehitu, beharrezko testura lortu arte.

Profiterolen oreka muturreko lisoa duen pastelgintzako "manga" edo mahuka batean sartu. Mahukarekin profiterolak egiteko zati erregularrak dosifikatu labeko paper edo "silpat" moduko silikonazko bandejatxo baten gainean.

Aurretik 210° C-tara berotutako labean 15 minutuz laberatu. Ez ireki labea profiterolak igo eta kanpoaldetik kolore gorrixta hartu dutela ikusi arte.

Ehiza (saltsa edo "civet"-a egiteko):

Barazkiak zati berdintsutan txikitu.

Erbia edo untzia zati txiki eta berdintsutan zatitu.

Erbia, barazkiak, piperrautsa eta ezkaia eltze sakon batean sartu. Ardoekin, sojarekin eta Armagnacarekin busti. Gau batez hozkailuan marinatzen utzi.

Erbi haragia marinatutik atera eta kanpotik kostra marroi bat egin arte eltze batean gorritu.

Ur pixka bat gehitu, eltze azpian itsatsita gelditu den gorritutako proteina beratzeko.

Berotutako zartagin batean barazkiak gorritu, osotasunean karamelizatu arte, eta erbi haragia ere karamelizatua dagoenean, dena bateratu eta gainetik marinatuarekin pixka bat busti.

Irakinarazi eta 20 minutuz su bajaran egosi. Txerri odola nahastu eta beste 20 minutu gehiagor egosi, marinada, likidoak eta espezieak gaineratu. 40 minutu gehiagor egosi su txikian baina irakiteari utzi gabe.

Pasadore batekin iragazi saltsa txokolate itxurakoa gelditu arte. Su bajaran eduki beste 40 minutuz, irakiteari utzi gabe.

AURKEZPENA:

Erbiarekin egindako saltsa edo "civet" a berotu, ez erretzearekin kontu izanez.

Profiterolak plater bero batean zerbitzatu.

Civeta edo saltsa txarro batean atera.

Duela urte mordoak, Arano herriatik 10 kilometrotara zegoen baserri batetan, bazen 7 urteko mutil bakarti bat, Mikel izena zuen. Bere amarekin bizi zen baina normalki bakarrik egon ohi zen. Amak lan asko egiten zuen.

Udazkeno bezala, Errekalku mendira joan zen ehizatza. Mutilak belarroi apuntatu eta nahi gabe txori bat jo zuen hegale batean, eta txoriak ezin zuen hegan egin. Mutilak txoria etxera eramane eta gau batez hura zaintzen egon zen, goizaldean loak hartu zuen. Mutila txorien kantuekin esnatu zen, begiak ireki eta... Harriturik geratu zen, baso batetan zegoen, belarroz inguratuta. Ur putzu batetara begiratu eta belarroi bihurtu zela konturatu zen. Gorputzera begiratu eta lumak ikusi zituen.

—Aaaaa! Zer gertatu da hemen?— izuturik garrasi egin zuen.

Halako garrasiarekin inguruko belarriak zuhaitzera igo ziren.

—Zer gertatzen da? Ametsetan al nago?— galdetzen zuen mutilak.

—Ez, ez da amets bat. Zigortu egin nahi zaitut!— erantzun zuen txoriak zuhaitz gainetik.

—Nor zara? Non zaude?— galdetu zuen mutilak.

—Hemen goian nago. Ni zuk tirokatutako txoria naiz, inguruetako txori-aztia.

Mikel harriturik geratu zen eta barkamena eskatu zion txoriari. Txoriak ez zion barkatu eta alde egin zuen. Mutilak basoan bakar-bakarrik geratu zen. Pixkanaka hegoak probatzen hasi eta aireratu zen. Airean oso gustora zebilen, altura hartatik oso polit ikusten zen dena. Bapatean, tiroak entzun zituen eta hegalei azkar eraginez zuhaitz artera

sartu zen beldurturik. Ehiztariak tiroka sumatzen zituen eta bere ondora uso bat erori zen ehiztariak tirokatuta. Mikel usoarengana hurbildu zen lagundu nahian baina ezin izan zuen ezer egin. Bere masaietatik malkoak erori ziren eta txori magikoa agertu zitzaion.

—Kaixo Mikel. Zer moduz joan zaizu?

—Gaizki, triste nago, ehiztariak usoa nola hil duten ikusi dut eta ni ere ia hil ninduten.— erantzun zuen mutilak.

—Orain badakizu nolakoa den gure udazkeneko bizia.

—Orain ulertzen dut.— esan zuen buru makur Mikelek.

—Badakit zure hitzak bihotzetik datozela. Eta uste dut berriro mutil izateko prest zaudela.— esan zion txoriak

Txori majikoak berriro mutil bihurtu zuen eta mutila korrika bere herrira joan zen. Mikel egunero jeiki eta gosaldurduko txori magikoarengana joaten zen. Goiz batean egunero bezala txoriarengana joan zen, ez zuen aurkitu. Bilaka eta bilaka zebilela ezusteko bat eman zion txoriak.

—Aaaa! Baina baino a ze ezustekoa eman didazuna.

—Barkatu, hurrengo urtean ikusiko gara Afrikara joan behar dut!—esan zion txoriak mutilari.

—Ondo da, ez ahaztu nitaz.

Mutila triste etxera abiatu zen. Gusetoko zuen laguna eta orain berriro bakarrik zegoen. Etxera iritsi zenean a ze poza. Bere etxeko lehioan txoria zegoen bere zai.

—Mikel hobeto pentsatu dut eta ez dut Afrikara joan beharrik izango zure etxean goxo hartzen banauzu.

—Noski noski geratu nire etxean.

Eta horrela Mikel ez zen gehiago bakarrik egon.



Gazteen erreleboa

Hemen ikusten dituzuen aranoar gazte hauek etorkizuna dira. Herriaren etorkizuna. Herri batek aurrera eginen badu ondorengoak behar ditu. Askotan iraganari begira jartzen gara, zein ohitura zeuden, nola aldatu diren garaiak urteen joanarekin, ze bilakaera izan duen herriak, biztanleek edo dena delakoak.

Iragan bat badugula jakina da. Baina, etorkizuna? Gure herriak aurrera egi-teko jendea behar du, orain artekoari segida emanen dietenak behar ditu, eta zorionez Aranon iritsi da erreleboa.

Horren erakusle dugu aurtengo festetan umeez hartu duten protagonismoa: festetako itxaferua botatzeko ohorea izan dute aranoar gaztetxoek. Ez hori ba-karrik, ohartu izan zareten moduan, inauterietako argazki honetan ere gazteak ageri dira. Aranon aspalditik errotuta dagoen ohitura bati segida emateko prest agertu diren gazteak dira. Ikusi eta ikasi dutena errepikatuko dute, sokak etenik izan ez dezan.